LIBURUAK

«Mitxelenaren idazlan hautatuak»

ETOR-ek berriki argitara emana, arrabotsa franko eta ondorio ugari ekarriko duen liburu baten aurrean gaudela iruditzen zait. Ados izan ala ez ados, aspaldiko honetan euskeraz agertu diren bizienetako bat da; eta bilduma honetaz berrizta liteke Mitxelenak berak dion berbera: «Ordutik hona, zenbat eta zer-nolako liburuak agertu dira euskaraz!»

P. Altunak prestatu duen bildumak ez du akatsik; eta, besteak beste, idazle eta saiolari presentatu digu Mitxelena. Gure Errenteriarra hizkuntzalari soiltzat ezagutu ohi delarik, egoki datoz haren idazle-nortasunaren atal hauek; eta artikulu hauetan Baroja, Escudero, Martin Santos, Charles Chaplin, eta abarren argitan ikus dezakegu Mitxelena.

Idazlan horiek anitz aldizkaritan sakabanaturik daude («EGAN»en bereziki), eta gazteek batez ere ez zituzten ezagutzen. Noiz egingo ote da gauza bera euskarari buruz erderaz hortik zehar erdi ahazturik edo galdurik dituen artikulu-pilo gaitzaz? Liburutan bildurik daukana («Fonética Histórica Vasca», «Historia de la Literatura Vasca», «Textos Arcaicos Vascos», eta baita, ene ustez, gure hizkuntzari buruz Mitxelenak idatziak dituen lanen laurdena ere. Gure argitaratzaileek dute azken hitza.

Altuna-ren bilduma honetan, Mitxelenaren biziaren berri ematen zaigu. Irakurleak soma dezakeanez oso murrizturik dago parte hau; eta Mitxelenaren zazpi urte bortitzenak aipatu ere ez dira egiten. Geroak osatuko du ezinbestezko hutsune hau. Ezagutzen ez genuen «Memorias de un jelkide» (1934) aipatzen digu ere, erderaz idatzia, eta zoritxarrez halako batez surtara botaia.

Jator kondatzen dizkigu egileak parte horretan gaztaroko bere larritasunak; eta gerokorik aipatzen ez badu ere, erraz antzematen diogu Mitxelenaren bizimodu nekezari, eta harritu ere egiten gaitu haren barne-deiaren gotorrak. Mitxelenak, sail honetan edo hartan nabarmendu eta garaitu duten gizon guztiak bezala, lanez, burrukaz, nahigabez, malkoz, iraupenez eta gogortasunez garaitu du. Berak egin du bere eskuez bere burua; ez inguruko losentxek edo ohore errazek. Mitxelena burrukan zaildu da, eta azterpidearen zorrotza erantsi dio euskararen jakintzari; eta liburu mamitsu hau, ahal den neurrian, burruka eta zorroztasun-erasketa horren lekuko da.

Euskal literaturaz mintzo zaigularik (Orixe, Etxepare, Oihenarte, Atsular, Mogel) zentzuz eta jakinduriaz egiten du; eta oso orrialde irakurgarriak eskeintzen.

Baina, dudarik gabe, euskararen batasunari buruz diharduelako, hiru kapituluk ekarriko dute, nik uste, zalapartarik handiena: 1) Arantzazu-ko Txostenak. 2) Baiona-ko Txostenak. 3) «Azken ordukoak» deritzana.

Arantzazuko Txostena *(1968-an Euskaltzaindiaren aginduz prestatua) ezaguna zen, oso ez bada ere. Euskaltzaindiak berak argitara du osorik (ikus «Euskera», 1968). Iñaki Beobidek ere 1969-an, Irakur Sail-ean, argitara zuen. Baina «Euskera» urtekaria gutxik ezagutzen du euskaltzainengandik at; eta Beobideren liburua ahituta dago. Makina bat euskaltzalek, horrela, ez zekien Arantzazuko Txostenaren bila nora jo. Horrengatik, hain zuzen oso penagarria izan da Arantzazuko Txosten horren eraskin gisa aurkeztu zen hitz-zerrenda luzea (2.000 hitz idazkera batuan) Altunak bilduman ez sartzea. Zerrenda hau talde-lana izanik ere (Mitxelena eta Laffitte besteren artean) bilduman sartzea merezi zukean, Mitxelenaren eskua ageri baita.*

Baionako Txostena *(1970) ez da batere ezaguna. «Euskal Idazleen Elkartea» orain dela bi urte Baionara bildu zenean, Mitxelena bertara joatekoa zen; baina azkeneko mementoan ezindurik, «Baionako Txostena» deritzan lan hori bidali zigun hara bilduoi aditz batuari buruz. Mitxelenaren iritzi horiek eta Arestik bere «Batasunaren Kutxa» moldatzeko erabili zituenak guztiz gertatu ziren elkarren ukaera; Mitxelenak gipuzkera proposatzen baitzuen paradigmen oinarritzat, eta Arestik berriz lapurtera. Liburuak ez du ekarri Arestiren partea baizik. Bidezkoa zen, hortaz, eta sobera luzatua izan da ene ustez, Mitxelenak Idazleen Elkarteari egin zion proposamendu ezezagun hori hitzez hitz argitaratzea.*

«Azken Ordukoak» *(1972) deritzan lana, azkenekorik, berria da osoki; eta, 18 orrialdetan barrena, Baionako Txostenaren irizpideari eusten dio Mitxelenak. Alegia: paradigma-kontuetan gipuzkera hartu behar dela oinarritzat.*

Ene ustez, eta dagoeneko hameka aldiz esana eta idatzia dut gauza bera, euskararen batasuna behar da; eta GAUR behar da, eta OSOA behar da, bai idazkeran eta bai fonetikan: ez bihar, are gutxiago etzi, eta ez erdizka. Ez inolz ere hemendik bi, bost edo hamar urtetara.

Aditzaren arazo hau, bestalde, teknika-arazo bat da, biologia edo programazioa bezala; eta ez uste-kontu bat. Euskararen teknikaren arazoetan, Euskaltzaindia dugu gidaritzat (beste edozein herritan hizkuntza-teknikaren arazoetan bertako Akademia gidari den bezalaxe). Eta Euskaltzaindian badugu lehenengo mailako tekniko bat: Koldo Mitxelena.

Uste dut, beraz, sasi-jakintsuen eta hizkuntzaren petrikiloen izurriteari zinez eta azkar eman nahi badiogu akabera, Mitxelenaren iritzia hartu behar dela ontzat; eta, paradigmari dagokionez, hortaz, gipuzkera hartu behar dela oinarritzat. Aditz-kontuan guk orain Mitxelenaren (eta Euskaltzaindiaren) irizpidea ontzat eman ez bageneza, ortografia edo deklinabide-kontuan bestek gauza bera egiteko aitzakia geronek eskain genezake. Horren zai daude batasunaren etsaiak. Eta horixe izango litzake, hain zuzen, euskararen batasunari egin lekiokean kalterik larriena: alegia, gu geu Euskaltzaindiaren izena edo aginpidea lardazkatzen hastea.

Zer falta da? Dizut / dautzut, didazu, nizun / nautzun, bikoteetan lehenengo saila ontzat ematea. Hautakizun horren aurrean luzaz tematzea eta kokatzea bidezkoa ahal litzake? Bene-benetan: ez dut uste. Badago besterik, alajainetan!

Arantzazuko bileratik honuntz batasunaren aldeko abiada moteldu egin da, ene ustez. TBO berri bat, esate baterako, berriz ere ortografi-hutsez beterik agertu da aste hauetan! Batasunaren kontrakoak berriz hasi bide dira lotsagabeki nintzatzen, eta beren «eskubideak» (erderaz «ombre», «muger» eta «vurro» idazteko!) aipatzen. Orain dela egun batzuk, Nobela-Sariaren arazo ezin lotsagarriagoa ikusi dugu: Eskaltzaindia bere buruaz ahalketurik, Arantzazuko erabakiak Euskaltzaindiak berak hildakotzat emateko zorian, eta ia-ia jukutri-bidez Arantzazuko erabakiei e u s t e n ... Nun ikusi da horrelakorik? Euskaltzaindiak ez du baimenik eskatu behar. Analfabetoak ikastolara! Eta kitto!

Seirehun andereño ari dira ikastoletan lanean; urtero 80 edo 100 liburu agertzen dira euskaraz; alfabetakuntza-ikastaldietan m i l a k a ari dira gure hizkuntza ikasten; irratietan, biltzarretan, euskara BAT behar da, BAKAR BAT; ez mila «ama-euskera» arlote eta zarpail. Otoi, beraz: onar dezagun bide bakar bat, Euskaltzaindiarena. Utz dezagun alde batera, ausarki eta lasai, aspaldiko geure arloteria; eta teknika-arazoetan mintza bitez teknikoak, eta isil bitez gainerakoak. Hori da batasunerako bidea.

Eta bide hori «jebismo»az, ezjakintzaz eta «taifa»-keriez bestaldetik abiatzen da.

LARRESORO

Bodegón Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintzo takite aruntz joaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, oberik ezin arki diteke merke ta ondo ematen.

Fermín Calbetón, 4

DONOSTIA

ZINE

Ipar Ameriketako zinea (I)

Ipar Ameriketako zineak, berebiziko garrantzia du, ezpairik gabe. Ango zine industria, naiz gaur egoera apalagoan bizi izan, goi mailan egona da, eta bere zuzendariek, nortasun berezi bat ezartzen die pelikulei. «Aeropuerto» filmaren zeaztasunak adierazteko adibidez, esakun au sortzen zaigu leendabizi: «Pelikula ori, jatorriz Ipar Ameriketarra duk». Berdin beste zenbait «Western» edo musikazko komeria ikusi ondoren: «Ipar Ameriketakoa duk», eta kito.

Gauza onek, zera esan nai du: Nazio bakoitzak, era berezi batetara egiten duela zinea; nortasunezko arropaz jazten duela alegia.

Orain beraz, Ameriketako zineaz itzegingo dugu, zinearen inguruan sortu duten industria, antzeslari eskola, zine ola eta abar aipatuaz.

Zine onen kondaira ordea, gure lantxoetan agertzeko zabalegia izanik mugatu bearrean garenez, zineko iriburuak, ots, Hollywood-ek izan dituen zuzendari ospetsu batzuri lotuko gatzaizkio. Auek bait dira (produktore edo zine sortzaileen baldintzapetan, noski) zinearí forma ematen diotenak.

Ango antzeslari sonatuei buruz ere («mamu sakratuei» buruz, beste era batetara esateko) idaztitxo bat egiteko asmotan gara.

Mamuak mamu eta besteak beste, as gaitezen bada zine zuzendariekin.

ORSON WELLES

II Gerra Nagusi aurretik, gizon onen aditzea bazen. Oso gazte zelarik (ogeita iru urte besterik ez bait zituen artean), jendeak bazuen bere berri.

Izan ere, eragin izugarria izan zuen 1938. Urrian C.B.S. irratiz egin zuen «Mundu arteko gerra» lanak.

Urrengo goizetik, ondoren zebilkion R.K.O. zine sortzaile etxea. Tratuan ibili eta gero, ara zer konponketara eldu ziren: Wellesek, 125.000 dolar jasoko zituen aurrez zine zuzendaritzako lanengatik, eta p e l i k u l a bakoitzaren etekinetik % 25 gainera. Zineko kondaira guztian, ez zen orrelakorik inoiz gertatu.

1939 urtean asi zen Hollywood-en lanean, eta 1940ean, burutu zuen «Citizen Kane» bere leen pelikula.

Baina zer zen «Citizen Kane» filma?

Egunkari askoren nagusi zen William Randolf dirutsuaren bizimodua batik bat. Egunkari ofizioak U.S.A.-n izan dituen monopolio eta aldaketak ere azaltzen zituen.

Šikolojia eta gizarte alderditik ere badu zenbait erakutsi, giro kapitalista batetako guztiz aberats batek dituen berekoitasun, auleria eta ukazioak agerian ipiniaz.

Welles-ek berak onela dio: «Nik pertsona guztiei eskaintzen diet itzegiteko aukera berdina. Baita nirekin bat ez datozenei ere. Etsaiei ere, beren arrazoibideak erabilarazten dizkiet eta ori dela-ta gizon atseginak egin daitezke ikusleentzat, pelikularen esan naia zalantzan jarriaz. Baina gehienez ere, pertsona batzuen jokabideak dira zalantzazkoak. Pelikularen funtsa inola ere ez».

«The Magnificent Ambersons» pelikula ezik, beste guztiak, pertsona nagusi baten inguruan eraikitakoak dira. Welles-ek, bere buruaren ispilu ditu izen ezberdineko (Kane, Othelo, Macbeth eta Arkadin) pertsona auek.

Welles-en filmetan, zuzenbidea eta andimandikeriaren arteko borroka nabarmentzen da, eta ia beti, kontzientzia isilarazten duen andizale agertzen zaigu bera.

«Citizen Kane»-z gainera ere baditu Welles-ek eztabaidatuak izan diren lanak, baina aipatzekoa da zuzendari onetan asiera asieratik Europak izan duen erasana. Pelikula guztiak bait dute Europako ikutua oraindik orain Arthur Penn-ek salatzen zuenez.

Orson Welles «Gaitzaren egarri» filman.

Eta Welles obeto ezagutzearren, azter dezagun beste lan bat; «The Trial» edo «Hauzia».

Kafka idazlearen nobela sakon batetan oinarritua da, eta pertsonaren giro, jokabide, askatasun naia eta abar erabiltzen ditu. Gizonaren barnemuinetara jotzen du beraz.

Gizona, ies egin nai duen giltzapetua dugu. Baina askatasun bidea aukeratzerakoan, munduaren arinkeria eta azaleko, itxurazko kontuei jaramon egiten badio, eriotza besterik ez du jasoko ordaintzat.

Mundu oni, zikinkeria, zakarkeria, arrotzkeria eta naasketa bait dario, zine oialean bete betean agertzen duen arabera.

Orson Welles, antzeslaritzan ere aritu zaigu, zuzendaritzatik at.

Antzezlari iaioa dugu bere zenbait pelikulatan ikusi dugunez. ospetsuena da nire ustez. Denbora lekuko.

Bere lan aipatuenak auek dira:

Citizen Kane, The Magnificent Amberson, The Stranger, Lady from Shangai, Macbeth, Othelo, Touch of Evil, Mr. Arkadin, The Trial, Falstaff, The inmortal Story e.a.

UNANUE'TAR XABIER